



EHU

Euzko Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

EHUn PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA 2026



SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean, EHU), Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna eta, hori dela eta, doktorego tesien elaborazioa sustatzen du; horrexetarako, doktorego aurreko pertsonal ikertzailearen kontratazioa helburu duen honako laguntza deialdi hau argitaratzen du.

Egungo gizartean ezinbestekoak dira doktoreak, bai testuinguru produktiboan bai sozialean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintza eta berrikuntza aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

EHUn sortzen da EAEn sortzen den unibertsitate mailako euskarazko ekoizpen zientifiko gehiena. Euskarak gaur egun hizkuntza gutxitu gisa duen egoera kontutan hartuta, ezinbestekoa da ikertzaileen lan eta ekarpena euskaraz egin eta zabal dezatela. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordeak arlo hau bultzatu nahi izan du azken urteotan eta, horretarako, laguntzak eman dizkie doktoregai elebidunei doktorego tesiak euskaraz egin ditzaten. Hortaz, EHUn Euskararen IV. plan gidarian (2023-2027), Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainaren 11an onetsitakoan, helburu gisa hartzen da euskarazko doktorego tesien kopuru osoa gehitzea, bai eta doktorego-tesia euskaraz egiteko deialdia bultzatzea ere. Honez gainera, plan gidari berri honetan, bermatu nahi da euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea ikerkuntzaren alorrean eta, horretarako, prestakuntza espezifiko eskainiko zaio prestakuntzan ari den ikertzaile kontratatuei.

Halaber, EHUK, 2014ko azaroaren 19an esparru hitzarmen bat egin zuen Bordeleko unibertsitatearekin proiektuan integratutako unibertsitateekin Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratzeke, zein bere bikaintasun proiektuen testuinguruan, Euskampus eta IdEx Bordeaux, hurrenez hurren. Esparru hitzarmen hori berritua izan zen 2018ko azaroaren 30ean eta luzatu beste lau urtetarako. 2023ko azaroan berriz berritu zen, 2023-2027 aldirako ibilbide-orri estrategikoa ezarriz. Euroeskualdeko Campusaren helburua mugaz gaindiko sare bat osatzea da, nazioartean eragina izango duena eta ardatz atlantikoaren erreferentzia bilakatuko dena hala jakintzaren sorrerari nola gaitasun zientifiko eta teknologikoei dagokienez, eta hori jakintzaren balio kate osoan: ideien sorreratik hasi eta ideiak gizartearentzako onura bilakatu arte.

Oinarritzko hitzarmenak xede hauek ditu, besteak beste: sinatzaileen arteko lankidetzak akademikoak, gradu eta masterreko titulazioak eta etengabeko prestakuntzako ikasketak elkarrekin emateko, erakunde bietan aitortpena izango dutenak kredituetan; ikerketa proiektuak egitea lankidetzan; eta doktorego tesiak tutorekidetzan zuzentzea.

Azkenik, Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan, doktorego aurreko kontratuak egiteko deialdi publikoa sartu da, doktorego tesiak tutorekidetzaren erregimenean egiteko.

EHUn 2026-2028 Plan Estrategikoaren helburua da irakasle eta ikertzaileen plantilla plana onartzea eta garatzea. Horretarako, beharrezkoa da doktoreen prestakuntza aurreikustea langile doktoreen urritasuna hauteman den jakintza arloetan, eta horrek irakasleen plazak betetzeari eragiten dio. Testuinguru horretan, deialdi honen bidez, aipatu arloetan doktorego tesiak egitea bultzatu nahida, berariazko beharrak zehaztuz eta plaza kopuru bat gordez eta, horrela, horietatik datozen eskaerei lehentasuna emanez.

Nazioartekotzea balio erantsia da doktorego aurreko prestakuntzan, ikaskuntza eta ikerketa karreran beharrezkoak diren gaitasunen garapena osatuz. Horregatik, deialdi honek nazioarteko egonaldi bat egiteko baldintza ezarri du, batez ere doktorego-tituluaren nazioarteko aipamena lortzera bideratua.

Desgaitasuna duten pertsonentzako kupo bat ezarri da, pertsona horiek ikerketa karreran dituzten beharrianak kontuan hartuta, aukera berdintasuna bermatzeko eta desgaitasun arrazoiengatik diskriminazioari aurre egiteko.

Era berean, kupo bat ezartzen da, egoera hauetarikoren batean dauden pertsonentzat: nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun direnak, aldi baterako babesaren eskatzaile edo onuradunak direnak edo aberrigabeak diren pertsonentzat, euren ikertzaile-ibilbidea garatzeko dituzten premiei erantzuteko; xede izanik, aukera-berdintasuna bermatze eta nahitaezko lekualdatzarekin edo nazioarteko-babesa egoerarekin lotutako diskriminazioari aurre egiteko.

Honako deialdi hau, hortaz, batera aurkezten dute Ikerketa Errektoreordetzak, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eta Bordeleko unibertsitatearekiko eta UPPArekiko lankidetzaren barruan. Horregatik, lau modalitatetan egituratuta dago, deialdiaren 2. oinarrian adierazi bezala.

Laguntzak finantzatzeko aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 5.750.000 eurokoa izango da. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak 620.000 euro jarriko ditu, eta gainerakoa Ikerketa Errektoreordetzak finantzatuko du, 2027-2030 aldirako Eusko Jaurlaritzarekin laster sinatuko den Kontratu Programaren finantzaketan oinarrituta. Adierazitako zenbatekoa handitu edo murriztu ahal izango da, aurrekontu-baliabideen erabilgarritasunaren arabera.

Errektoreordetza biok konprometitutako finantzaketaz ordainduko dira errektoreordetza bi horiek lehenago burututako deialdien bidez emandako laguntzei legezkiekeen urteko ordainketak eta doktorego aurreko kontratu berrien lehenengo urteko ordainketak. Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak erabaki dute deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. oinarria. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko tituludunak EHUn doktorego programetan prestatzea, bai eta jakintza zientifikoaren edozein arlotako doktorego tesiak egitea ere, doktorego aurreko kontratuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (aurrerantzean ZTBL) 21. artikuluan eta 2022ko irailaren 6ko aldaketan ezarritakoarekin bat etorruta.

ZTBLk ezartzen duen bezala, irailaren 5eko 17.2022 Legeak aldatu ondoren, doktore aurreko kontratuaren xedea doktoratu ondoko orientazioa (POP) ere izango da, 12 hilabete gehienez, deialdi honen 5.10 oinarrian ezarritako baldintzekin.

2. oinarria. DEIALDIAREN MODALITATEAK

2.1. Deialdiak lau modalitate ditu:

- **I. modalitatea:** Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kontratazioa.
- **II. modalitatea:** Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kontratazioa, doktorego tesia euskaraz egiteko.
- **III. modalitatea:** Kontratazio deialdia, ikertzaileak EHUn prestatzeko EHUn eta Bordeleko unibertsitatearen arteko tutorekidetzan.
- **IV. modalitatea:** Kontratazio deialdia, ikertzaileak EHUn prestatzeko EHUn eta UPParen arteko tutorekidetzan.

2.2. Hautagai bakoitzak eskari bakar bat egin ahal izango du, I. eta II. modalitateak batera hautatu ahal dituelarik, nork bere interesaren arabera lehenetsiz, edo III. zein IV. modalitateetako bat. III. eta IV. modalitateak bateraezinak dira elkarren artean eta I. eta II. modalitateekin. Beraien arteko bateraezintasunik duten modalitateak hautatuz gero, horietako bakar bat aukeratu beharko da akatsak zuzentzeko fasean.

2.3. Modalitateen hautaketa eta lehenespena ezin izango da aldatu, eskaria aurkeztu ondoren.

3. oinarria. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten denean**:

3.1.a. Honako baldintza hauetakoren batbete:

- i. **Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izatea, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina** lortuta, data hori barne. Arau horrek bi salbuespen izango ditu:
 - Doktoregorako sarbidea ematen duen titulazioaren aldi baterako baldintza honen betetzetik salbuetsi ahal izango da, baldin eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen bada eta proposatutako ikerketa proiektuan egin beharreko lanarekin bateragarria dela egiaztatzen bada. IGBBk salbuespenezko inguruabarrak baloratuko ditu eta erabakiko du, hala badagokio, eskabidea deialdian onartu behar den. Nolanahi ere, deialdian parte hartzeko salbuespen egoera behin baino ez da onartuko.
 - Semea edo alaba jaio dela edo semea edo alaba zaindu dela egiaztatzen bada eszedentzia kasuetan, adopzio kasuetan edo adopziorako zaintzaren edo harrera iraunkorraren kasuetan, betiere jaiotza data edo, hala badagokio, ebazpen judizial edo administratiboaren data 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean gertatu bada, biak barne, doktoregora sartzeko unibertsitate titulua 2020ko urtarrilaren 1etik (barne) aurrera lortu ahal izango da.

- ii. **Unibertsitate tituludunen** kasuan, baldin eta **ebaluazio positiboaz** gainditu badu, gutxien dela, **bi urtetako** prestakuntza osasun zientzien espezialitateetako bateko titulu ofiziala lortzeko programa batean, alde aurretik **osasun prestakuntza espezializatuko plazak** lortzekogainditu beharreko proban prestakuntzarako plaza lortuta. Prestakuntza urte bi horien amaierak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izan behar du, berori barne.
- iii. **Doktoregora sarbidea ematen duen titulu baten azken ikasturtean aritzea.** Pertsona horiek 2026-2027 ikasturteko doktorego-programetan onartzeko ezarritako epearen barruan bete beharko dituzte doktoregoan sartzeko baldintzak. Dokumentazioaren aurkezpena honako deialdi honetako 6.1 oinarrian ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

Datei dagokienez, aintzat hartuko da doktoregorako sarbidea ematen duen lehenengo titulazioa noiz lortu den.

3.1.b **6,5 puntuko batezbestekoa** beharrezkoa da edukitzea lizentziatura izan edo, doktoregorako sarrera titulu moduan aurkeztutako graduako espediente akademikoan. Gutxieneko nota hori 6 puntura jaitsiko da batez besteko nota 6,5 puntutik beherakoa duten titulazioen kasuan, 2. eranskinetako datuen arabera.

Espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatzeko, doktoregora sartzeko titulutzat aurkeztutako lizentziatura edo gradua besterik ez da kontuan hartuko, beste espezialitate batzuetako irakasgaietan lortutako notak eta masterreko ikasketetako notak aintzat hartu gabe.

Honela, 3.1.a.iii puntuari adierazitako kasuan, eskatzailea Espainiako gradu titulu ofizialaren azken urtea egiten ari bada eskaera egiteko unean, espedientearen batez besteko nota kalkulatzeko, orain arte aurkeztutako espedienteko notak erabiliko dira, betiere, gutxienez 240 kreditu beteta baditu.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatzeko da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz.

Unibertsitateak kalifikatu ez direnak baina baliokidetu edo egokitu diren irakasgaien kasuan, jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, betiere dokumentalki egiaztatuta. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, gainditutako jokoa dira.

Atzerrian ikasketak egin dituzten eskatzaileen kasuan, batez besteko notaren baliokidetasun adierazpenean jasotzen den espediente akademikoaren batez besteko nota hartuko da kontuan. Adierazpen hori honako esteka honetan azaltzen den prozedura jarraituz lor daiteke:

https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/Equivalencia_notas_medias

3.1.c. Doktorego tesia egingo den **doktorego programan aurrez izena emanda egotea** Ikerketa Errektoreordetzak ofizioz egiaztatuko du eskatzailearen behin betiko onarpena doktorego-programan, onartuen eta baztertuen behin betiko erabakia argitaratu aurretik. Une horretan baldintza hori betetzen ez duten pertsonak deialditik kanpo geratuko dira.

3.1.d. **II. modalitatearen** kasuan, euskaren C1 maila egiaztatu beharko da, hizkuntza-tituluaren bidez edo euskara-maila Hizkuntza-tituluaren bidez egiaztatzenetik salbuespenari buruzko otsailaren 26ko 28/2019 dekretuan jasota dauden euskaraz egindako ikasketa ofizialen bidez .

Aurreko **baldintza guztiak** betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituztenak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

3.2. Eskatzaileek **baldintza guzti hauek bete beharko ditu kontratua sinatzerakoan:**

32a Europar Batasuneko herritarrak ez diren pertsonen kasuan, Espainian lan egiteko aurretiazko administrazio baimena izatea, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

32b. Eskabidean agertzen diren tesi-zuzendariekin batera EHUko doktorego-programan matrikulatuta egotea.

32c **III. modalitatearako**, bi erakundeetako doktorego-araudia betetzea eta, bereziki, lehenengo urtean eta aldi berean EHUko eta **Bordeleko Unibertsitateko** doktorego-programan matrikula egitea edo egin izana, eskabidean adierazitako tesi-zuzendariekin.

32d **IV. modalitatearako**, bi erakundeetako doktorego-araudia betetzea eta eskaeran adierazitako tesi-zuzendariekin UPPAren doktorego-programan matrikulatuta egotea.

Baldintza horietako guztiak ez egiaztatzea laguntza ukatzeko arrazoia izango da. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, doktorego eskolak ezarritako moduan eta epeetan.

3.3. Ezin izango dira eskatzaile izan, ez eta deialdi honen bidez sustatzen den kontratazioan sartu ere, honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

a. Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.

b. Eskabidea aurkeztu aurretik, 2 urtetik gorako doktorego aurreko kontratua izan badute, ZTBL aldatzen duen irailaren 5eko 17/2022 Legearen 21.c) artikuluan desgaitasuna duten langileentzat jasotako salbuespenetan izan ezik. Ondorio horietarako, aurretik izandako doktorego aurreko kontratuen iraupen osoa zenbatuko da jatorrizko deialdia edo erakunde finantzatzailea edozein dela ere. Metatutako denbora hori kontuan hartuko da kontratuaren gehieneko iraupena zehazteko eta deialdi honetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko, atzerriko ikerketa-egonaldia barne.

4. oinarria. TESI-ZUZENDARIEN BALDINTZAK

4.1. Eskari bakoitzak, gehien dela, hiru tesi-zuzendariren bermea izan beharko du, zer modalitatetan parte hartzen duen kontuan hartuta:

- a. **I eta II. modalitateak:** Gehien dela, hiru tesi-zuzendari izan ahal dituzte, 4.2. oinarriko baldintzak bete behar dituztenak.
- b. **III. modalitatea:** Bi tesi-zuzendari izan behar dituzte. Tesi-zuzendari bat EHUkoa izan behar da nahitaez, eta beste tesi-zuzendari bat Bordeauxeko unibertsitatekoa. EHUko tesi-zuzendariak 4.2. oinarriko baldintzak bete beharko ditu.
- c. **IV. modalitatea:** Bi tesi-zuzendari izan behar dituzte. Tesi-zuzendari bat EHUkoa izan behar da nahitaez, eta beste tesi-zuzendari bat UPPAkoa. EHUko tesi-zuzendariak 4.2. oinarriko baldintzak bete beharko ditu.

4.2. Tesi-zuzendariak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu **eskaria egiten denean**.

- a. Tesi-zuzendarietako batek gutxienez, eta, nolana ere, zuzendari gazteak, 7.1 oinarrian deskribatutako merezimendua lortzen badu, jarraian zerrendatzen diren baldintza **guztiak** bete beharko ditu.
 - i. EHUrekiko lan-harremana, funtzionarioa zein lan-kontratuduna, laguntza gauzatzeko epe osoan zehar.
 - ii. Doktorego tesia garatuko deneko EHUko doktorego programako irakasleetako bat izatea, edo doktorego programako batzorde akademikoaren erantzukizunpeko adierazpen bat izatea, (deialdiaren webgunean argitaratutako ereduaren arabera) doktorego programako irakaslea izan ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, eta, eskatzaileari beka emanez gero, dagokion programako irakasle gisa onartzeko izapideak egingo dituela 30 egun balioduneko epean, deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
 - iii. II. Modalitaterako, EHU euskaraz irakasteko akreditazioa izatea.
- b. Gainerako zuzendariak ere, zein bere prozeduraz zuzentzen diren tutorekideen kasuan izan ezik, doktorego programako irakasleen parte izan beharko dute, edo, bestela, dagokion batzorde akademikoak tesi-zuzendari gisa onartu beharko ditu, 30 egun balioduneko epean, deialdiaren behin-behineko erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tesi-zuzendariak ezin izango dio abala eman deialdi honetan eskari bati baino gehiagori. Egoera hori atzematen bada, eskatzaileak 7.2 oinarrian aurreikusitako eskabideak zuzentzeko epea izango du tesi-zuzendari berri bat proposatzeko. Zuzendari horrek deialdian eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu eskabideak aurkezteko unean.

Eskatzaileak aurreko tesi-zuzendaria agertzen den dokumentu guztiak eguneratu eta aurkeztu beharko ditu, behin betiko zuzendariaren datuak jasota.

Baldintzak betetzen ez dituen beste tesi-zuzendari bat proposatuz gero, ezin izango da zuzendu, eskaria baztertzeko arrazoia izanik.

Eskatutako baldintzak garaiz eta behar bezala betetzen dituztela frogatzen ez duten zuzendarien eskabidea hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da. Halaber, zuzenketa-fasean baldintzak betetzen ez direla antzematen bada, , eskaera ukatzeko arrazoia izango da.

Eskatzaileak egiaztatu ahal izango du proposatutako zuzendariak baldintzak betetzen dituzten, beraiek aukeratu duten doktorego programan barruan "Irakasleak" atalean sartuz, honako esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktoregoa>

5. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK:

5.1. Honako laguntza hauen deialdia egin da, kontratu gisa:

- a. I. modalitatea: gehienez, 45 kontratu emango dira.
- b. II. modalitatea: gehienez, 7 kontratu emango dira.
- c. III. modalitatea: gehienez, 5 kontratu emango dira.
- d. IV. modalitatea: gehienez, 3 kontratu emango dira.

Aurreikusi diren laguntzen kopurua aldatu ahal izango da emateko erabakian, aurrekontu baliabideen arabera eta laguntzen iraunpen aldakorraren arabera.

III. Modalitatean plaza bat gordeko da Mugaz Gaindiko Lankidetzeta Laborategiei (MGLL) lotutako eskaerarako, baldin eta alde zuzenetik EHUren doktorego aurreko laguntzarik lortu ez badute.

Emandako laguntza guztietatik berariazko hamar laguntza gordeko dira, gehienez, honako jakintza arlo hauen artean banatzeko: Pintura; Irudigintza; Eskultura; Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika; Matematikaren Didaktika; Didaktika eta Eskola Antolaketa; Musika Adierazpenaren Didaktika; Adierazpen Plastikoaren Didaktika; Gizarte Zientzien Didaktika; Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia; Erizaintza; Finantza Ekonomia eta Kontabilitatea, Ingeniaritza Elektrikoa eta Itsasketa Zientzia eta Teknikak. Eskaera horiek lau modalitateetara irekita egongo dira eta ez da laguntza bat baino gehiago gordeko jakintza arlo bererako zerrendatuen artean. Arlo espezifiko horietako batean, lau modalitateetako edozein dela, eskabidea aurkeztu duen pertsonak eskabidean adierazi beharko du. Doktorego tesiaren proiektuak hautatutako arlokoa izan beharko du ezelako zalantzarik gabe, eta arlo horretan ebaluatuko da. Eskaera kupo orokorrera aldatzeko ahalmena izango du Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak, eskaeraren ezaugarriek hala gomendatzen dutela uste badu. Hamar laguntza espezifiko horietakoren bat hutsik geratzen bada, kupo orokorrera pasatuko da.

Gutxien dela, laguntza guztietatik 3 gordeko zaizkie % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela egiaztatzen duten pertsonen, baldin eta tesi-zuzendariaren txostenaren bidez egiaztatzen badute 1. oinarrian ezarritako lanarekin bateragarria dela. Ziurtagiri hori eskabidean aurkeztutako hasierako dokumentazioan sartu behar da.

Gutxien dela, laguntza guztietatik 1 gordeko zaie, egoera hauetarikoren batean dauden pertsonen: nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun direnak, aldi baterako babesaren eskatzaile edo onuradunak direnak edo aberri gabeak diren pertsonentzat. Plaza horretara aurkeztu ahal izateko, eskabidea aurkezteko unean deialdi honetako 6.2 oinarriaren q. letran adierazitako egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Aurreko lau paragrafoetan (LKLrekiko lotura, arlo espezifikoak, desgaitasuna eta nazioarteko babesa, aldi baterako babesa eta aberri gabetasuna eskatu edo jaso duten pertsonak) aipatutako plazen erreserba egin ahal izateko, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira eta gainerako eskabideen ebaluazio prozedura bera jarraituko dute. Zehazki, laguntza eman ahal izateko, ebaluazioaren azken fasera iritsi beharko dute eta 7.3 oinarrian eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditu beharko dute.

Azken banaketak, gutxienez, laguntza guztien zortzi kontratu bermatuko ditu jakintzaren bost arlo nagusietarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak) deialdiaren lau modalitateetan esleitutako kontratuak batera zenbatuta, aurreikusitako plaza-erreserbak barne.

Erreserbatutako zortzi kontratu hauetatik bost zuzenean esleituko dira, baldin eta ebaluazio irizpideen arabera 7.3 oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen badute. Erreserbatutako gainerako hiru kontratuak esleitzeko, 7.3 oinarrian eskatzen den gutxieneko puntuazioa ere gainditu beharko dute, eta, gainera, gutxieneko hori gainditzen duten eskaeren % 10 gutxienez egon beharko dira dagokion jakintza arloan. Gainerako laguntzak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera emango dira, jakintza arloa edozein dela ere eta eskatutako modalitatearen arabera.

5.2. Eskainiko den lan kontratua ZTBren 21. artikulua arautuko du. Kontratutako pertsona prestakuntzan dauden doktorego aurreko ikertzailetzat hartuko da.

5.3. Kontratutakoa, beraz, EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

5.4. Laguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da atzerrian gutxienez hiru hilabeteko ikerketa-egonaldi jarraitua egitea. Egonaldi hori doktorego aurreko kontratuaren azken luzapena formalizatu aurretik egin beharko da; hau da, kontratuaren legezko gehieneko iraupenari dagokion azken urtea baino lehen, deialdi honen 5.5 oinarrian adierazitakoaren arabera. Egonaldia nazioarteko doktorego-aipamena lortzera bideratuta egongo da. III. eta IV. modalitateen kasuan, egonaldia tutorekidetzara egiten ari diren

herrialdea ez den beste herrialde batean egin beharko da.

5.5. Kontratua arduraldi osokoa izango da eta urtebetetik gora iraun behar du. Halaber, kontratuaren iraupena ezin izango da lau urte baino luzeagoa izan, edo sei urtekoa desgaitasuna duten langileen kasuan. Zenbaketa honetan, edozein erakundetan modalitate berean (ZBTLren 21.art) kontratatuta emandako denbora hartuko da kontuan. Luzapenak urtero egingo dira, betiere kontratuaren onuradunak doktorego programan jarraitzen badu. Azken urteko luzapena soilik egingo da onuradunak 5.4 oinarrian ezarritako ikerketa-egonaldia egin badu.

Doktorego programan urtero matrikula formalizatzea eta eskabidean adierazitako tesi-zuzendariaren aldeko txostena ezinbestekoa izango da kontratua luzatzeko. II. modalitateko kontratua luzatzeko, gainera, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren aldeko txostena beharko da, errektoreordetza horrek ezarritako urteko jarraipenean oinarrituta. Ez da, inola ere, programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.

Edozelan ere, kontratuaren luzapenak aurrekontu erabilgarritasunaren menpe egongo dira.

5.6. Aldi baterako lan ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak eten egingo dute kontratuaren epearen zenbaketa..

5.7. Ikerketa Errektoreordetzak baimendu ahal izango du bekaren etenaldia sei hilabetez gehienez ere, interesdunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza ebazpenean ezarritako epean amaituko da. Laguntzaren etenaldian zehar baja emango da Gizarte Segurantzari. Etenaldia igaro ondoren lanera ez itzultzea, kontratuariuko egin zaiola ulertuko da eta kontratuaren behin betiko amaiera eragin lezake.

5.8. Deialdi honetan formalizatzen diren kontratuen ordainsaria araututa egongo da ZBTLren 21. artikulua eta 103/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duenarena arabera. Horrez gain, kontuan hartuko da EHUKo Irakasle eta Ikertzaileen Akordioan xedatutakoa, non egokitzen baita aldi baterako ikertzaileen arautegia da, doktorego aurreko kontratuaren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako Espainiako sistemara sartzeko kontratuaren modalitatean (Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko erabakia).

5.9. Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute EHUekin lan kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan amaituko da edo 15. oinarrian ezarritako beste edozein arrazoi gertatzerakoan.

5.10. Laguntza hauen bidez kontratatutako pertsonen tesia defendatzea 4 urteko gehieneko epea agortu gabe, ZBTLren 21. Artikuluan ezarritakoaren arabera, doktoretza-ondoko orientazio-aldia (POP) izango dute, hobekuntza eta espezializazio profesionalerako.

POP aldi horrek ez du kontratua aldatuko, eta gehienez 12 hilabeteko iraupena izango du tesia defendatzen denetik, betiere doktoretza doktoratu aurreko kontratua gauzatzen den bitartean lortzen bada, eta ezin izango da inola ere gainditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritako 4 urteko gehieneko muga (irailaren 5eko 17/2022 Legeak aldatu zuen 14/2011 Legea).

POP aldiaren iraupena, nolana ere, kontratuaren indarraldiaren mende egongo da. Ondorioz, atzerriko egonaldia ez egiteagatik azken urterokoa ez berritzearen erabakiak automatikoki ekarriko du POP aldirako eskubidea galtzea, indarrean dagoen kontratu-aldia amaitzen den datan.

Laguntza honen onuradunak Ikerketa Errektoreordetzari (pre-postdoc.dgi@ehu.eus) jakinarazi beharko dio tesia irakurri eta defendatzeko esleitzen zaion eguna, gutxienez 15 egun lehenago, eta tesia irakurri ondoren defentsa-akta bidali beharko du.

6. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

6.1 Eskaria aurkezteko tokia eta era.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eskabideak EHUKo <https://egoitza.ehu.eus> egoitza elektronikoaren bidez bakarrik aurkeztuko dira, eta "ESKAERA" eremuan "PIF 2026" erreferentzia eta "Ikerketa Errektoreordetza - GGBB (U02000381)" destino-unitatea adieraziko dira.

Horretarako, egoitza elektronikoan jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian

instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Salbuespen gisa, eta hautagai batek **egiaztatzen badu ez dela Espainiako lurraldean bizi**, hautagai horren eskaera **EHUko tesi-zuzendariak** aurkeztu ahal izango du, haren ordezkari gisa. Horretarako, hautagaiak agiri hauek helarazi beharko dizkio ordezkariari:

1. **Ordezkaritza baimena** sinatuta, deialdiaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
2. **Identifikazioa egiaztatzen duen agiri ofiziala**: pasaportearen edo NANaren pareko dokumentua.
3. Deialdiaren **6.2 oinarrian** eskatzen diren **agiri guztiak**, PDF formatuan.

Tesi-zuzendariak EHUn egoitza elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus>) eskaerak aurkezteko **epearen barruan**, aurreko paragrafoan deskribatutako agiri guztiak erregistratu dituzte. Errazago identifikatze aldera, izapide hori burutu ostean mezu elektronikoa bidali behar da solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbidera, eta gaian zehaztu beharko da "PIF 2026" deialdian eskaera ordezkariaren bitartez egin dela. Hautagai berak eskabide bat baino gehiago egiten badu, deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztutako azken eskaera hartuko da kontuan, ez besterik.

6.2 Beharrezko dokumentazioa:

- a. **Eskaria**, eskura daitekeen eredu erabiliz. Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukizat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.

Eskabidea 5.1 oinarrian zerrendatutako arlo espezifiko batera aurkeztu bada, argi eta garbi adierazi behar da hori eskabide inprimakian.

Eskabidea **ingelesez** aurkeztuko da **lehentasunez** PDF formatuan, baina EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.

- b. **Proiektuaren memoria**, eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztu beharko dena. Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukizat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.

Proiektuaren memoria **ingelesez** aurkeztuko da **lehentasunez** PDF formatuan, baina EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz. II. modalitatearen berriazko kasuan, memoria **euskaraz aurkeztu** beharko da ere.

- c. Doktorego tesia garatuko deneko **doktorego programan aurretiko izena** eman izanaren **egiaztagiria**.
- d. **Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako ziurtagiri akademiko pertsonala**, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. **Kasuan kasuko ikasketak EHUn egin dituzten hautagaiek ez dute dokumentu hau aurkeztu beharrik.**

Oro harturik, ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kredituek osatzen dutela titulazio osoa. Titulazioa osatu gabeko ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute 3.1.a.iii oinarrian deskribatutako egoerari helden dioten eskatzaileek, betiere uneko kredituen gutzizkoa titulazio osoarekin bat badator eta gaitutako kredituen kopurua 240 baino handiagoa bada.

Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera, atzerrian egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena aurkeztu beharko da Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak emana. Agiri hau honako esteka honen bidez eskura daiteke:

https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/Equivalencia_notas_medias

Noten transkripzioa aplikazioan aurkeztutako ziurtagiri akademiko pertsonalean agertzen den **hurrenkera berean**, egin behar da eta bat etorri beharko dute kalifikazioei dagokienez.

- e. **Eskatzailearen Curriculum Vitae Laburtua (CVA), gehienez 4 orriko PDF formatuan.** Eskatzaileak honako esteka honen bidez sartu ahal izango dira online editorean: <https://cvn.fecyt.es/editor/>. Aplikazioari buruzko kontsulta teknikoak cau.editor.cvn@fecyt.es helbidera bidali beharko dira.

Eskatzailearen CVA **ingelesez idatzita** egon beharko da eta modu argian eta bereztuan jaso beharko ditu 7.1 atalean (8. Irizpidea) deskribatutako ebaluazioaren mende dauden

merezimendu guztiak. Betebehar hori ez betetzeak meretzimendu horien baloraziorik ez egitea ekarriko du.

- f. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartzen diren pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere, l. oinarrian ezarritako egin beharreko lanarekin bateragarria dela ziurtatzen duena.
- g. **Familia Liburuaren fotokopia**, 3.1.a.i oinarriko bigarren atalean aipatutako salbuespenari helduz gero.
- h. **Espezialitatearen tituluaren edo ziurtagiri ofizialaren kopia**, 3.1.a.ii oinarrian deskribatutako bidea erabiliz sarbidea eskatuz gero.
- i. Hala balegokio, **hizkuntzen** jakite maila egiaztatzen duen **ziurtagiria (soilik B2, C1 edo C2 mailak)**.
- j. Hala balegokio, **euskararen** jakite maila egiaztatzeko **ziurtagiria (B2, C1 edo C2 mailak besterik ez)**. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria ere aurkeztu beharko du.
- k. Hala badagokio, **Doktorego Programako Batzorde Akademikoaren erantzukizunpeko adierazpena**, tesi-zuzendariak doktorego programako irakasle izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duena, 4.2.a oinarria betez, eta, eskatzaileari laguntza ematen bazaio, dagokion izapideak egingo dituen dagokion **programako irakasle gisa onartua izan dadin**, 30 egun baliaduneko epean, laguntza emateko behin-behineko ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.
- l. Hala balegokio, **zuzendari gaztearen meretzimendua eskuratzeko erantzukizunpeko adierazpena** (deialdiaren 7.1.6 oinarria), eskuragarri dagoen ereduaren arabera
- m. II. modalitatean, eskatzaileak eskabide-formularioan euskararen inguruan **alegatutako meretzimenduak** egiaztatzeko dokumentazioa (C2, TFM eta/edo TFG euskaraz).
- n. II. modalitatean, euskararekin lotutako **tesi-zuzendariek** eskabide-inprimakian **alegatutako meretzimenduak** egiaztatzeko dokumentazioa (C1 edo C2, euskarazko tesi-zuzendaritza, euskarazko zientzia-ekoizpena).
- o. III. eta IV. modalitateetan, espainieraren edo euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiria, Frantziako nazionalitatea eskatzen duen pertsonarentzat. eta frantsesa, Espainiako nazionalitatea duen pertsonarentzat (B2, C1 edo C2 mailak besterik ez). Beste nazionalitate batzuetako eskatzaileen kasuan, gaztelaniaren edo euskararen eta frantsesaren jakite mailaren egiaztatzea.
- p. Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, adieraziz ez duela doktore titulurik eta ez duela aldeztu aurretik 2 urte baino gehiagoko doktorego aurreko kontraturik izan eta ez duela araututako ikasketarik egiten, edozein dela ere irakaskuntza-modalitatea, aurrez aurrekoa edo urrutikoa, eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera.
- q. Nazioarteko babesaren, aldi baterako babesaren edo aberrigabetasuna eskatzaileentzat edo onuradunentzat erreserbatutako kupoaren bidez sartzen diren hautagaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
- **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) erroldatze-ziurtagiria**, eskabidea aurkezteko eguneko edo aurreko datarekin jaulkitakoa.
 - **Nazioarteko babesaren egoera egiaztatzen duen indarrean dagoen dokumentu ofizia hauetako baten kopia:**
 1. Nazioarteko Babesaren eskaera aurkeztu izanaren egiaztatzea (txartel zuria).
 2. Asilo-eskatzaile izatearen egiaztatzea, eskaeraren izapidetza onartu dela egiaztatzen duena (txartel gorria).
 3. Aberrigabe estatusa aitortzeko eskaera aurkeztu izanaren egiaztatzea edo aitortza-ebazpena.
 4. Ukrainatik desplazatuek, aldi baterako babesaren eskaera aurkeztu izanaren egiaztatzea, emate-ebazpena edo egoitza-txartela.
 5. Nazioarteko babesaren onuradunaren ziurtagiria: errefuxiatua, babes subsidiarioaren onuraduna edo arrazoi humanitarioengatik egoitza-baimena egiaztatzen duena.

Sinadura bat edo batzuk eskatzen dituzten dokumentu guztietan, sinadura horiek elektronikoak izan beharko dute beti, eta ziurtagiri aitortu baten bermea izan beharko dute. Baldintza horretatik salbuetsita geratuko dira, beren sinadurei dagokienez (ez tesi-zuzendarien sinadurei, saileko zuzendariaren sinadurei...), Espainiako lurraldean bizi ez direla egiaztatzen duten langileak. Emakidaren behin-behineko erabakia argitaratu ondoren aurkeztu beharko dituzte dokumentuak, eskuz izenpetuta.

Atal honetan eskatutako dokumentazioa bakarrik ebaluatuko da; beraz, eskatzaileak ez du dokumentazio gehigarririk aurkeztu beharko merezimenduak egiaztatzeko. Eskabideak aurkezteko **epearen azken egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik onartuko dira baliozkotzat.**

6.3. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 15ean hasi eta 2026ko uztailaren 6an amaituko da.

7.oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

7.1Ebaluazio-irizpideak.

Ebaluazio-irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

Irizpidea	Modalitatea	Puntuak gehien jota	Oharrak
1. Espediente akademikoko batez besteko nota arautua (masterra kontuan hartu gabe)	I-II-III-IV	50 puntu	Nota normalizatzeko erabilitako prozesua 3. eranskinen jasotzen da.
2. Hizkuntza jakitea (e)	I-II-III-IV	5 puntu	Adierazitako puntuazioa hizkuntza-maila egiaztatuz lortzen da, mailaketa honen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • C2 egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu. • C1 egiaztagiria eta baliokideak: 4 puntu. • B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu. Egiaztagiri hauei dagokienez, 2010eko <u>azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako</u> baliokidetasunak hartuko dira kontuan, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa baita.
3. Euskara maila (e)	I	5 puntu	
4. Frantses maila nazionalitate espainiarra duten Eskatzaileei edo euskara edo gaztelaniaren maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei.	III-IV	5 puntu	
5. Euskararen arloan egindako ekarpenak (d)	II	5 puntu	2. irizpidea balioesteko, zehaztapen hauek hartuko dira kontuan : <ul style="list-style-type: none"> - I. eta II. modalitateetan, atzerriko edozein hizkuntza hartuko da kontuan, eskatzailearen jaioterrikoa izan ezik, hori ez bait da zenbatuko. - III. eta IV. modalitateetan, edozein hizkuntza hartuko da kontuan , frantsesa eta gaztelania izan ezik. Euskara kontuan hartuko da irizpide honetan, baldin eta 5. irizpidea kontuan hartu ez bada. 4. irizpidea baloratzeko, eta espainiar edo frantziar nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, frantsesa, gaztelania eta /edo euskara jakitea hartuko da kontuan; beste hizkuntza batzuen ezagutza, berriz, 2. irizpidean zenbatuko da, jaioterrikoa izan ezik, ez baita zenbatuko.
			Irizpide honen ebaluazioa Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak egingo du, honako baremo hauek aplikatuta: <ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailearen merezimenduak (gehienez 2 puntu): <ul style="list-style-type: none"> ▪ C2: 1 puntu ▪ Euskarazko GrALa eta MALa: 0,5 puntu bakoitzeko • Doktoregotesi-zuzendarien merezimenduak (gehienez 2 puntu): <ul style="list-style-type: none"> ▪ C1: 0,5 puntu / C2: 1 puntu ▪ Euskarazko tesi-zuzendaritza: 1 puntu tesi bakoitzeko ▪ Euskarazko ekoizpen zientifikoa (1 puntu gehienez): <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldizkari zientifikoetako euskarazko artikulua: 0,5 puntu (0,25 puntu elkarlanetan). ▪ Argitaratutako hitzaldiak: 0,25 puntu

			<p>(0,125 puntu elkarlanetan)</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Liburua: 1 puntu (0,5 puntu elkarlanetan) • Euskarazko ikerketa-proiektuaren hizkuntza-maila: 1 puntu gehienez.
6. Zuzendari gaztea	I-II-III-IV	5 puntu	<p>Adierazitako puntuazioa lortzen da tesi-zuzendarietako batek, gutxienez, <u>baldintza guzti hauek</u> betetzen dituenean:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aldez aurretik defendatutako doktorego tesi bat baino gehiago zuzendu ez izana . Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da baldintza hori, eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera. 2. EHUrekin lanaldi osoko kontratua izatea laguntza gauzatzen den aldi osoan. 3. Gainera, 4.2.a.ii oinarrian ezarritako baldintzak betetzea. <p>Betekizun horiek eskabideak aurkezteko unean bete beharko dira, eta erantzukizunpeko adierazpenak eskuragarri dauden eredu normalizatuaren arabera aurkeztuz egiaztatuko dira.</p>
Guztizko partziala		65 puntu	
7.Ikerketa proiektuaren interes eta kalitatea zientifikoa	I-II-III-IV	30 puntu	<p>Proiektuaren memorian zehaztutako edukiaren arabera, eskuragarri dagoen <u>eredu normalizatuaren arabera</u>.</p>
8.Eskatzailearen curriculum	I-II-III-IV	5 puntu	<p>Balioetsiko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza arautuan zehar atzerrian egonaldiak egitea. • Lankidetzan aritzeko edo ikerketa jarduerak egiteko bekak • Ikerketa proiektuetan parte hartzea • CNEAiren irizpideen araberako ekarpenak <p>Garrantzitsua: emandako CVAk modu argian eta kontrastagarrian adierazi beharko ditu atal honetan deskribatutako eta deialdi honetako IV. eranskinean zehaztutako ebaluatu daitezkeen alderdi guztiak.</p>
Guztizko partziala		35 puntu	
GUZTIRA		100 puntu	

7.2 Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzaren IKZ-k aurkeztutako eskariak aztertuko ditu. Azterketa hori egin ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak onartutako eta baztertutako eskabideen zerrenda argitaratuko du bere webgunean, 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. irizpideetan lortutako behin-behineko puntuazioekin batera.

Eskaerak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, Ikerketa Errektoreordetzak eskatuko dio eskatzaileari 10 egunen epean osatu eta zuzen dezan. Okerren zuzenketak aurkeztu beharko dira 6. oinarrian deskribatutako oinarriak erabilita.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerak ezin izango dira inolara ere berriro egin. Ikerketa Errektoreordetzak eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Ikerketa Errektoreordetzak ofizioz egiaztatuko du eskatzailearen behin betiko onarpena doktorego programan, onartu eta baztertuen behin betiko ebazpena argitaratu aurretik. Une horretan aipatutako betekizuna betetzen ez duten pertsonak deialditik kanpo geratuko dira.

7.3 Ebaluazio prozesua.

Ebaluazio prozesua bi fasetan egingo da, eta ebaluazio izapideak, gutxien dela, bi hilabete iraungo du. Lehenengo fasean ofizioz ebaluatuko dira 7.4 oinarrian aurkezten den taulan ezarritako 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. irizpideak, guztira 65 puntu izanik. Lortutako emaitzak handienetik txikienera ordenatuko dira zientziaren 5 arlo handietarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Humanitateak). Antolamendu hori modu bateratuan egingo da 4 modalitateetako eskaerentarako. I. eta II. modalitateetara aurkeztutako eskaeren kasuan, eskatzaile bakoitzaren puntuaziorik onena aukeratuko da.

Zientziaren bost arlo handietako bakoitzean, fase honetan puntuazio baxuenak (laugarren kuartila) dituzten eskaeren % 25 ukatuko dira, baldin eta puntuazio hori 25 puntutik beherakoa bada. Laugarren kuartilean egon arren 25 puntu edo gehiago dituzten eskabideak bigarren ebaluazio fasera igaroko dira, gainerako eskabideekin batera.

Zuzenketa aldian aurkeztutako dokumentazioa berrikusi eta lehenengo fasea ebaluatu ondoren, onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da, 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. irizpideetan lortutako behin betiko puntuazioekin batera. Bertan behera utzi direla ulertuko da forman eta epean zuzendu ez diren eskabideak eta merezimenduak. Hori egin eta berehala argitaratuko dalehenengo faseko ebaluazioaren emaitza.

Bigarren fasean, 7.1 oinarrian aurkezten den taulan ezarritako 7. eta 8. irizpideak ebaluatuko dira, guztira 35 puntu direla. Irizpide horien ebaluazioa kanpo prozesu baten bidez egingo da, UNIBASQ-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren edo antzeko ezaugarriak dituen kanpoko agentziaren bidez.

Ebaluatzaileek euskararik ez balekitez, Ikerketa Errektoreordetzak euskaraz aurkeztutako eskabideak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko enkargua egingo du. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoz helaraziko zaio eskatzaileari, eskarian adierazitako helbide elektronikoen bidez. Bost egun balioduneko epea izango du eskaria berrikusteko eta ados dagoela adierazteko. Epe hori igarota, eskatzailea ados dagoela ulertuko da. Epe hau zenbatzeko, aintzat hartuko da posta-kudeatzaileak mezu elektronikoa eman izanaren egiaztatzea.

Bigarren fasera igaro diren eskabideen puntuazio osoa lortzeko, eskatzaile bakoitzari lehenengo fasean egindako ebaluazioaren guttizkoa eta bigarren fasean lortutako ebaluazioaren guttizkoa batuko zaizkio. Ebaluazioaren emaitzak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketa errektoreordeari, behin-behineko ebazpena eman eta argitaradezan.

Laguntza deialdiko lau modalitateetako edozeinetan lortuko bada, eskabideak **gutxienez 50 puntu** lortu beharko ditu bigarren fasearen ondoren.

Eskatzaile batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a) espediente akademikoaren batez besteko nota arauturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (1. Irizpidea)
- b) Lehenetsi egingo da 7. irizpidean puntuazio altuagoa lortu duen eskaria.
- c) Lehenetsiko da deialdi honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren % eskariko, zientzia arlo bakoitzean).

7.4 Behin-behineko ebazpena.

Ikerketa Errektoreordetzak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, bere webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Behin-behineko ebazpenean baztertuak izango dira EHUrekin deialdi publiko lehiakor hauetakoren baten kargura finantzatutako doktorego aurreko kontratua formalizatu duten pertsonak: FPU, Eusko Jaurlaritza eta fundazioei lotutako doktorego aurreko laguntzak. Salbuetsita daude ikerketa-talde edo -proiektu baten baliabide propioekin finantzatutako EHUko prestakuntza-ikerketako doktorego aurreko kontratuaren modalitatean kontratatutako pertsonak (PIF taldeak), bai eta FPI laguntzen onuradunak ere.

Ez da onartuko dagoeneko formalizatuta dagoen kontratuari uko egitea, EHUren doktorego aurreko laguntza hau eskuratzeko.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek gehienez 10 egun baliaduneko epea izango dute laguntza onartzeko. Esan bidezko **onarpenik jasotzen ez bada, uko egiten diotela** ulertuko da. Era berean, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Epe horretan alegaziorik jasotzen ez bada, alegatzeko eskubidea bertan behera geratu dela ulertuko da.

7.5 Behin betiko ebazpena.

Epe hori igarotakoan, Ikerketa Errektoreordetzak aurkeztutako alegazioak aurkeztuko dizkio IGBBri, bertan azter daitezen eta, ondorioz, Ikerketa errektoreordeari dirulaguntza emateko behin betiko ebazpen-proposamena egin dadin.

Kontratua emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balio izango du.

7.6 Behin betiko ebazpenaren aurkako errekurtsioak.

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, baina inola ere aldi berean erabilia:

1.-Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarritz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsitatz joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.-Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea daga, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

8. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

8.1. Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen onuradunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketa Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau aurkezteko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin behineko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen onuradunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte Ikerketa Errektoreordetzan:

- Indarrean dagoen NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia **PDF formatuan**.
- Eskabidean adierazitako doktorego programako matrikula agiria, edo III. eta IV. modalitateetako programak.
- Deialdi honen esleipendun izateko betebeharrak onartzen dituen agiria, tesi- zuzendarien eta saileko, institutuko edo atxikitze guneko zuzendariaren oniritziarekin.

- d. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituena.
- e. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktoregoaurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- f. Lanean hasi izanaren ziurtagiria, tesi-zuzendari guztiek sinatua.
- g. Ikerketa jarduerak gizakiak, hauen datuak eta laginak, ikerketarako animalia-ereduak edo agente biologikoak edo GEOak erabiltzen baditu, eskatzaileak konpromiso bat aurkeztuko du, zuzendaritzako arduradunak sinatua, dagokion batzordearen aldeko txostena lortzeko, ikerketa-jarduera hasi aurretik. Laguntza eman ondoren, eta jarduera hasi aurretik, kasuan kasuko etika batzordearen aldeko txostena aurkeztu beharko da IKZren aurrean.
- h. Graduko titulua
- i. Masterreko titulua (doktoregorako sarbidea ematen duen titulazioa denean soilik)

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

8.2. Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

8.3. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerketa Errektoreordetzak baimena eman dezake hasteko eguna gehienez hiru hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaria 8.1 oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztuko da.

8.4. Eskaria ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

9. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

9.1. Prestakuntza bidean dauden ikertzaileek eskubidea dute txertatzen direneko sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, hauen baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko.

9.2. Kontratutakoek unibertsitateko ikerkuntzarako zerbitzu orokorrak (SGiker) eta beroriek hartuko dituen ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabili ahal izango dituzte. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

9.3. Kontratutako langileek lankidetzaren osagarriak eskaini ahal izango dituzte proposatutako ikerketa jarduerarekin lotutako irakaskuntza zereginetan, ikasturte bakoitzeko gehienez 60 ordutara arte, eta gehienez 180 ordu kontratua indarrean dagoen bitartean edo indarrean dagoen legeriak ezartzen duenean, betiere tesi-zuzendariak eta, hala badagokio, inplikaturako saila ados jarri ondoren, eta EHUko langileen bateraezintasunei buruz indarrean dagoen arautegiaren arabera, eta ezin izango dira irakasgaien arduradun izan, probarik egin edo ikasleak ebaluatu.

Irakasle lanetan laguntzeko baimen eskaera IKZn aurkeztuko da, irakasleen lankidetzaren hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost egun lehenago gutxienez, eta saileko zuzendariak, doktore tesi-zuzendariak eta kontratatutako pertsonak sinatu beharko dute.

9.4. Kontratutako langileek mugikortasun laguntza jaso ahal izango dute 5.4 oinarrian eskatzen den atzerriko egonaldia egiteko, EHUko ikertzaileen mugikortasunerako laguntzen deialdian aurreikusitako baldintzetan.

9.5. Matrikula-gastuak. Doktorego ikasketen matrikula-gastuei aurre egiteko osagarri bat ezarriko da, eta ezin izango du gainditu Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako Sailburuaren dagokion Aginduan ezarritako unibertsitate-zerbitzu akademikoaren prezio publikoaren gehieneko zenbatekoa, EHUko goi-mailako hezkuntza zerbitzu publikoaren prezioak finkatzen dituena. Honako kontzeptu hauek finantzaturako dira: dedikazio osoko doktoregaiaren prestakuntza eta jarraipena, doktorego programetako tutoretza-matrikula eta matrikularen gastu finkoak, istripuen oinarritzko aseguruia eta eskola-aseguruia barne. Gehienez, 273,17 euro ordainduko dira. Gehigarri hori 2025-2026 ikasturtetik aurrera (barne) ordainduko da EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratazioarako deialdiaren arabera araututako doktoratu aurreko kontratu aktiboak dituzten ikertzaile guztiei.

10. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

10.1. Eskabidean adierazitako doktorego programan urteko matrikula formalizatzea, EHUko Graduondoko Batzordeak ezartzen dituen aldi eta epeen barruan, eskabidean adierazitako zuzendari berberekin, Ikerketa Errektoreordetzari jakinarazitako eta berak baimendutako ezinbesteko goeretan izan ezik.

10.2. Lan egitea adskribatutakosailean, institutuan edo ikastegian.

10.3. Atzerrian ikerketa egonaldia egitea, gutxienez 3 hilabetez jarraian, 5.4 oinarrian ezarritako epearen barruan. Baldintza hori ez betetzeak 5.5 oinarrian aurreikusitako doktorego aurreko kontratuaren azken luzapena ez formalizatzea ekarriko du.

Atzerrian egindako egonaldiaren egiaztagiria IKZn aurkeztu beharko da, aipatutako luzapena formalizatzeko aurreikusitako data baino gutxienez hilabete bat lehenago.

10.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte Ikerketa Errektoreordetzak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

10.5. Honako deialdi honen aipamena egin beharko dute, kontratuak dirauen bitartean egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatuko liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

10.6. Organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrol jardueretara makurtzea, jarduera horietarako eska dezaketen edozein informazio emanaz.

10.7. EHUren titulartasuna aitortzea, prestatzen ari diren ikertzaileen ikerketa-lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitopenari betiere eutsiz.

10.8. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

10.9. Doktoretitulua lortukodutelegozkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

11. oinarria. TESI-ZUZENDARIAREN BETEBEHARRAK

11.1. Tesi-zuzendarien betebeharrak izanen da doktoregaiari emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesi-zuzendari kide gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketa Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

11.2. Ikerketa Errektoreordetzari jakinaraziko diote deialdi honen bidez kontratatu den pertsonalak doktore gradua lortu duela.

11.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte Ikerketa Errektoreordetzak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

12. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

Deialdi honen kontura finantzatutako kontratuak bateraezinak izango dira beste edozein kontraturen indarraldiarekin, Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. Artikuluko jarduerak eta Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 60. artikuluan jasotako beste erakunde edo pertsona fisiko batzuekiko lankidetzak kontratuak izan ezik. Nolanahi ere, jarduera horretan parte hartzea bateragarria izango da baldin eta ez badio eragiten doktorego aurreko kontratuaren prestakuntza alderdiari, bere xedea zuzenean lotuta badago doktorego tesiarekin, eta tesi-zuzendariak baimena ematen badu, zeinak, aldi berean, parte hartu beharko baitu. Aipatutako jardueren jaso ahal izango diren ordainsariak ezin izango dute laguntzaren urteko zenbateko gordinaren % 30 gainditu.

Deialdi honen babesean jasotako laguntzak bateraezinak dira bestelako ikasketa arautuekin, izan urrutiko modalitatean, izan aurrez aurrekoan. Salbuetsi egiten dira, ikasketa osagarriak, bigarren mailakoak direnak, baldin eta doktorego aurreko kontratutik eratorritako betebeharrak eragotzen ez badituzte. Edonola ere, doktorego-tesiari eskainitako dedikazioa lehenetsi beharko da, eta tesi-zuzendarien oniritzia beharko da.

13. oinarria. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako langileek izandako gorabeherak oro, tesiaren garapenari eragiten badiote edo laguntza emateko baldintzak aldatzen badituzte, onuradunak jakinarazi beharko ditu tesi-zuzendariaren oniritziarekin gertaera eragilearen ondorengo hiru egun baliiodunetan. Onuradunak emandako laguntzari uko egin nahi badio, gertakaria gertatu baino 5 egun baliiodun lehenago jakinarazi beharko du.

Eskaera egiteko, idazkia bidali beharko da rrh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, kasu bakoitzean eskatzen diren egiaztagiriekin batera.

Horrez gain, kontratatutako ikertzaileak bere uko egitearen, bajaren edo gorabeheraren berri emango dio Irakasle-Ikertzaileen Errektoreordetzari.

14. oinarria. JARRAIPENA

14.1. Deialdi honen arabera kontratatutako langileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa IKZri dagokio, eta horretarako prozedura egokiak ezarriko ditu. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen organo, batzorde edo langile adituak izendatu ahal izango ditu, kontratuaren aplikazioaren jarraipen eta egiaztapen jarduketa egokiak egiteko eta egokitzat jotzen duen informazio osagarria aurkezteko eskatzeko.

14.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio Ikerketa Errektoreordetzari.

14.3. Kontratuaren amaio eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketa Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

15. oinarria. KONTRATUEN ETETEA

15.1. Lan kontratuaren ondorengo arrazoiertako batengatik etengo da:

- a. Kontratuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskareren adierazitako doktorego programaren matrikulatutako pertsonaren izaera galtzea. Arrazoi hori ez da aplikatuko 1. eta 5.11. oinarrietan deskribatutako doktoratu ondoko orientazio-aldia (POP) baliatzen ari bada.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskarian adierazitakoez besteko tesi-zuzendariekin aritzea, Ikerketa Errektoreordetzaren baimenik gabe.
- e. Tesi-zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi-zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- g. Laguntzarako aurrekontu krediturik ez dagoelako.
- h. 5.4. oinarrian eskatutako egonaldia ez egitea oinarri horretan ezarritako epearen barruan.

16. oinarria. BETEKIZUN EKONOMIKOAK

16.1. Gizakiek parte hartzea, laginak edo datuak erabiltzea eskatzen duten jarduerak baldintza etiko, metodologiko eta legalak betetzen direla zaindu beharko dute, eta ebaluazioa eskatuko diote Gizakien Ikerketarako Etika Batzordeari, haren datuei eta laginei (CEISH-EHU). Beharrezkoa izango da aldeko txostena lortzea ikerketa hasi aurretik.

16.2. Ikerketa-animaliak erabiltzea eskatzen duten jarduerak modu arduratsuan egin beharko dira, indarrean dauden legeetan eta jarraibide instituzionaletan xedatutakoaren arabera, eta ezarritako baldintza etiko guztiak betez. Ebaluazioa eskatuko diote Animalien Esperimentaziorako Etika Batzordeari (CEEA-EHU), eta beharrezkoa izango da dagokion aldeko txostena eta dagokion foru-aldundiaren baimena lortzea, ikerketa-jarduera egingo den lurralde historikoaren arabera, jarduera hasi baino lehen. Animalia-eredu biziekin ikertzeko metodo alternatiboen erabilera sustatuko da, eta irizpide orokor gisa ezarriko da hiru erreen printzipioa sustatzea eta ezartzea: ordezkapena, murrizketa eta fintzea.

16.3. Arrisku biologikoa dakarten jarduerak EHUko langileen eta ikerketa-jardueran parte hartzen duten pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatuta egin beharko dira. EHUren instalazioetan egiten diren ikerketa-jarduerak orok, baldin eta genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzea, gizakientzat, animalientzat, landareentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren agente biologikoak erabiltzea eta horiek dituen materiala manipulatzeko badakar, eskatutako euste-neurriak hartzea eta behar bezala baimendutako instalazio egokiak erabiltzea eskatuko du, eta ebaluazioa eskatuko diote Agente Biologikoekin eta OMGekin Ikertzeko Etika Batzordeari (CEIAB-EHU), eta beharrezkoa izango da aldeko txostena lortzea ikerketa hasi aurretik.

16.4. Giza enbrioi-enbrioiertako enborreko zelulak edo horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea dakarten jarduerak 45/2003 Legean eta soberan dauden enbrioiertatik lortutako enborreko zelulekin ikerketa-proiektuak garatzeko eskakizunak eta prozedurak ezartzen dituen 2132/2004 Errege Dekretuan eta giza zelulak eta ehunak emateko, erauzteko, ebaluatze, prozesatzeko, kontserbatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituen uztaillaren 4ko 09/2014 Errege Dekretuan xedatutakora egokitu beharko dira.

Horrez gain, giza jatorriko lagin biologikoak behar bezala lortzeko eta erabiltzeko, kontuan hartu beharko da azaroaren 18ko 1716/2011 Errege Dekretuak, ikerketa biomedikoa egiteko eta giza lagin biologikoak tratatzeko biobankuak baimentzeko eta funtzionatzeko oinarriko baldintzak ezartzen dituenak, ezarritako giza laginen bidezko ikerketari buruzko araudia, eta ikerketa biomedikorako Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dituenak.

16.5. Deialdi honen bidez proposatzen diren jarduerak ezin izango dute lagundu gerrak garatzen, sustatzen eta bultzatzen, eta, zehazki, ez diete zuzenean edo zeharka lagunduko armak fabrikatzen eta/edo merkaturatzen diharduten enpresei.

16.6. Deialdi honen baitan egingo diren ikerlanek errespetatu egingo dute EHUren Ikerketako Jardunbide Egokien Kodea, bai eta ikerketaren etika, osotasun eta jokabide arduratsuaren arloan aplikatzekoa den araudia ere. Betebehar horiek ez betetzeak proiektua etetea ekar dezake, dagokion prozedura bideratu ondoren, bai eta, hala badagokio, emandako laguntza osoa edo zati bat baliogabetzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteren epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketa Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2026ko ekainaren 12an.

Juan Ignacio Umerez Urrezola
Ikerketa Errektoreordea

I. ERANSKINA: GJHen KATALOGOA

Eskarian adieraziko da, Agenda 2030en Garapen Iraunkorreko zein helbururekin (GIH) bat da torren aurkeztu den proiektua (gehienez 3 aukeratu , planteatzen den proiektuarekiko harreman mailaren arabera ordenatuta). Honako hauek dira GIHak:

1. GIH	POBREZIA DESAGERTZEA
2. GIH	GOSERIK EZ IZATEA
3. GIH	OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. GIH	KALITATE ONEKO HEZKUNTZA
5. GIH	GENERO BERDINTASUNA
6. GIH	EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA
7. GIH	ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA
8. GIH	LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
9. GIH	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
10. GIH	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
11. GIH	HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK
12. GIH	EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA
13. GIH	KLIMA BABESTEKO EKINTZA
14. GIH	URETAKO BIZITZA
15. GIH	LEHORREKO BIZITZA
16. GIH	BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK
17. GIH	ITUNAK HELBURUAK LORTZEKO
17+1. GIH	HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA

Eskarian labur deskribatuko dira (gehienez 500 karaktere) aurkeztu den ikerketa proiektuak eta bere helburuek hautatutako eta lehenetsitako hiru GIHekin duten lotura.

2. ERANSKINA: TITULAZIOEN BATEZ BESTEKO NOTAK ZIENTZIAREN ARLO HANDIEN ARABERA**1. ARLOKO GRADUAK: ZIENTZIAK**

TITULAZIOA	Titulazioaren batez besteko nota	Titulazioaren batez besteko nota*10	Titulazioaren desb. estandarra	Erabilitako espediente kop.
Biologiako Gradua	7,28	72,76	6,69	355
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	8,15	81,50	6,24	170
Bioteknologiako Gradua	7,68	76,83	7,04	157
Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua	6,67	66,75	4,74	87
Ingurumen Zientzietako Gradua	7,16	71,64	5,23	145
Fisikako Gradua	6,99	69,93	7,06	249
Geologiako Gradua	6,65	66,48	7,21	69
Matematikako Gradua	7,15	71,46	8,13	281
Kimikako Gradua	7,10	71,01	6,44	442
	7,20	72,04	6,53	1955

2. ARLOKO GRADUAK: INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

TITULAZIOA	Titulazioaren batez besteko nota	Titulazioaren batez besteko nota*10	Titulazioaren desb. estandarra	Erabilitako espediente kop.
Arkitektura Teknikoko Gradua	6,77	67,69	6,53	98
Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	6,92	69,24	5,39	338
Ingurumen Ingenieritzako Gradua	6,77	67,70	5,18	39
Ingeniaritza Zibileko Gradua	6,75	67,53	6,40	168
Energia Berriztagarrien Ingenieritzako Gradua	7,19	71,93	7,11	185
Meatzaritza eta Energia Teknologiarren Ingenieritzako Gradua	6,39	63,88	5,79	17
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	6,56	65,62	6,03	104
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	6,87	68,69	6,45	110
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingenieritzako Gradua	6,69	66,90	6,19	621
Automobilgintza Ingenieritzako Gradua	7,75	77,45	4,77	143
Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingenieritzako Gradua	6,99	69,91	4,90	124
Industria Antolakuntzako Ingenieritzako Gradua	6,84	68,39	4,75	184
Telekomunikazio Teknologiarren Ingenieritzako Gradua	6,89	68,85	6,40	189
Industria Teknologiarren Ingenieritzako Gradua	6,72	67,24	5,86	561
Informatika Ingenieritzako Gradua	7,06	70,58	8,18	390
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingenieritzako Gradua	7,09	70,87	7,24	292
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	6,60	65,97	5,82	695
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	6,88	68,75	6,62	205
Industria Kimikaren Ingenieritzako Gradua	6,62	66,19	5,15	46
Adimen Artifizialeko Gradua	7,77	77,66	8,28	60
Itsasketako Gradua	6,90	68,99	4,43	40
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua	7,07	70,70	6,10	59
	6,91	69,12	6,07	4668

3. ARLOKO GRADUAK: OSASUN ZIENTZIAK

TITULAZIOA	Titulazioaren batez besteko nota	Titulazioaren batez besteko nota*10	Titulazioaren desb. estandarra	Erabilitako espediente kop.
Biologiako Gradua	7,28	72,76	6,69	355
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	8,15	81,50	6,24	170
Bioteknologiako Gradua	7,68	76,83	7,04	157
Erizaintzako Gradua	8,23	82,35	4,07	1431
Farmaziako Gradua	7,12	71,25	6,12	420
Fisioterapiako Gradua	8,10	80,98	4,49	192
Medikuntzako Gradua	8,06	80,58	5,74	1151
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	7,24	72,43	5,33	156
Odontologiako Gradua	7,88	78,82	5,78	126
Psikologiako Gradua	7,69	76,88	5,84	902
	7,74	77,44	5,73	5060

4. ARLOKO GRADUAK: GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK

TITULAZIOA	Titulazioaren batez besteko nota	Titulazioaren batez besteko nota*10	Titulazioaren desb. estandarra	Erabilitako espediente kop.
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	6,89	68,95	7,09	1583
Gizarte Antropologiako Gradua	7,72	77,17	7,16	115
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	7,26	72,65	7,90	211
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	7,58	75,77	5,37	420
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	7,32	73,22	5,28	325
Kriminologiako Gradua	7,65	76,52	5,38	206
Zuzenbideko Gradua	7,21	72,07	7,20	804
Ekonomiako Gradua	6,82	68,21	7,09	274
Haur Hezkuntzako Gradua	7,85	78,50	5,62	1282
Lehen Hezkuntzako Gradua	7,86	78,57	5,82	1937
Gizarte Hezkuntzako Gradua	7,86	78,58	5,02	758
Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	6,62	66,16	4,91	59
Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	7,04	70,42	7,39	60
Negozioen Kudeaketako Gradua	6,68	66,77	5,56	347
Marketineko Gradua	6,96	69,60	6,38	169
Pedagogiako Gradua	8,09	80,87	5,85	218
Kazetaritzako Gradua	7,01	70,14	6,38	484
Psikologiako Gradua	7,69	76,88	5,84	902
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	7,05	70,54	5,29	443
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	7,04	70,39	6,98	332
Soziologiako Gradua	7,18	71,83	7,02	181
Gizarte Langintzako Gradua	7,56	75,58	6,56	446
	7,32	73,15	6,23	11556

5. ARLOKO GRADUAK: ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK
--

TITULAZIOA	Titulazioaren batez besteko nota	Titulazioaren batez besteko nota*10	Titulazioaren desb. estandarra	Erabilitako espediente kop.
Arteko Gradua	7,63	76,34	7,29	446
Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	7,17	71,66	6,99	117
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	7,68	76,78	6,66	351
Ingeles Ikasketetako Gradua	7,34	73,42	8,30	308
Euskal Ikasketetako Gradua	7,35	73,52	9,25	197
Filologiako Gradua	7,53	75,34	7,93	277
Filosofiako Gradua	7,64	76,43	7,05	132
Historiako Gradua	7,40	74,03	7,89	322
Artearen Historiako Gradua	7,33	73,30	7,78	104
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	7,87	78,68	6,88	214
	7,49	74,95	7,60	2468

Oharra: EHUn baliokidetu daitekeen titulaziorik ez duten graduen kasuan, dagokien jakintza-arloko graduen batez besteko balio orokorra hartuko da erreferentziazat. Izaera zeharkakoagatik bi jakintza-arloetara atxiki daitezkeen titulazioen kasuan, eskatzailea matrikulatuta dagoen doktorego-programarekin lotura eta afinitate handiena duen arloaren batez besteko balioa aplikatuko da.

3. ERANSKINA: BATEZBESTEKO NOTA NORMALIZATZERO PROZEDURA

Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (lehenengo irizpidea) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan EHUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz. EHUn emandako titulazioen batez besteko notak erabiliko dira, 2021/22, 2022/23, 2023/24 eta 2024/25 ikasturteetan ikasketak amaitu zituzten ikasle guztientzat kalkulaturik, deialdiaren 2. eranskinean jasota daudenak.

Eskatzaileak egiaztatutako titulazioak EHUn pareko titulaziorik ez badu, graduaren jakintza-arloko graduaren batez besteko nota globala erabiliko da erreferentzia gisa.

Espainiako unibertsitate sistematik kanpo lortutako espedienteen kasuan, 1. irizpidea baloratzeko, atzerrian egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpenean jasotako balioa erabiliko da, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak emana, baldin eta baliokidetasun hori beharrezkoa bada lehiaketa-prozesu batean parte hartu ahal izateko.

Aipatutako adierazpena deialdiaren 6. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da. Adierazpen hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira.

Eskaeran adierazitako titulazioaren espediente akademikoaren batez besteko nota haztatutik abiatuta normalizatuko da batez besteko nota, honako definizio hauek erabilita eta ondoren zehazten den moduan.

Eskatzailearen_BatezBestekoa: Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

Titulazioaren_BatezBestekoa: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batez bestekoa.

Titulazioko_DesbEstand: Eskaerako titulazioaren azken urteetako espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen desbideratze estandarra.

NR_eskatzailea: Eskatzailearen espediente akademikoa normalizatzeko koefizientea, formula honen bidez kalkulaturik :

$$\frac{(BatezBestekoNota_eskatzailea \times 10) - (BatezBestekoNota_titulazioa \times 10)}{\text{DesbEstandarra_titulazioa}}$$

DesbEstandarra_titulazioa

Gutx_NR: Gutxieneko normalizazio koefizientea, eskaera guztiak erabiliz kalkulaturik, balio baxuenen % 2,5 ezabatu ondoren .

Geh_NR: Gehieneko normalizazio koefizientea, eskaera guztiak erabiliz kalkulaturik, balio altuenen % 2,5 ezabatu ondoren.

Eskatzailearen_NotaNormalizatua: Eskatzailearen nota normalizatua, 0tik 50era bitarteko eskalada, 1. irizpidean zehaztutako balioaren arabera, eta honako formula honen bidez kalkulaturik (bi hamartarrekin biribildua):

$$=50 \times \frac{(NK_eskatzailea) - (NK_gutx)}{(NK_geh) - (NK_gutx)}$$

Eskatzaile batek titulazio bikoitza egin badu, berarentzako notarik onuragarrien normalizatua aukeraturik da. Titulazio bat baino gehiago aldi berean egin ez badira, 3.l.a. oinarrian ezarritako denbora eskakizuna betetzen duena erabiliko da normalizaziorako.

4. ERANSKINA: CVA BETETZEKO GIDA

Gomendio orokorrak:

Eskatzaileek CVA modu identifikagarrian eta erreferentziagarrian bete behar dute.

Merezimendu bat sarrerako ataletan edo deskribapen orokorretan aipatze hutsak ez du bermatzen hura baloratuko denik.

Informazio nahikorik ez emateak merezimendua ez baloratzea ekar dezake.

Jaso beharreko informazioa:

1. Prestakuntza arautuan zeharutzerrian egonaldiak egitea

- Jarduera mota (ikerketa-egonaldia / nazioarteko mugikortasuna).
- Helmugako unibertsitatea edo zentroa.
- Herrialdea.
- Hasiera-data eta amaiera-data.
- Egonaldiaren iraupen osoa, astetan.
- Egonaldian egindako jarduerak (laburpena: 2–3 lerro argi eta zehatz).

2. Lankidetzan aritzeko edo ikerketa jarduerak egiteko bekak

- Bekaren edo laguntzaren izen ofiziala.
- Erakunde deitzailea edo finantzatzailea.
- Talde, sail edo zentro hartzailea (hala badagokio).
- Arduraduna edo ikertzaile nagusia.
- Hasiera- eta amaiera-data.
- Iraupen osoa, astetan.
- Egindako zereginen deskribapen laburra.

3. Ikerketa-proiektuetan parte hartzea

- Proiektuaren izenburu ofiziala.
- Erakunde finantzatzailea.
- Proiektuaren erreferentzia ofiziala.
- Ikertzaile nagusia.
- Taldea edo saila.
- Egindako parte-hartze mota.
- Parte-hartzearen hasiera- eta amaiera-data.
- Iraupen osoa, astetan.

4. CNEAIren irizpideen araberako ekarpenak

- Erreferentzia bibliografiko osoa.
- Ekarpn mota.
- Argitalpen-egoera (argitaratua, onartua, etab.).
- DOI edo identifikazio-esteka (halakorik badago).
- Kalitate-adierazle garrantzitsuak:
 - indexazioa,
 - kuartila edo inpaktua,
 - argitaletxe akademikoa,
 - lehiakortasuneko kongresua,
 - aipuak,
 - edo bestelako adierazle egokiak.